



EBAZPENA, 2020KO UZTAILAREN 3KOA, INGURUMEN ADMINISTRAZIOAREN ZUZENDARIARENA, BARAKALDOKO 02. BURTZEÑA-MUNOA EU-REN HIRI-ANTOLAMENDUKO PLAN OROKORRAREN ALDAKETA PUNTUALAREN IRISMEN-DOKUMENTUA EMATEN DUENA.

AURREKARIAK

2020ko martxoaren 31n, Barakaldoko Udalak Barakaldoko 02. Burtzeña-Munoa EUren hiri antolamenduko plan orokorraren aldaketa puntualari (aurrerantzean, plana) buruzko eskaria bete zuten Eusko Jaurlaritzako Ingurumen Administrazioaren Zuzendaritzaren aurrean, irismen-dokumentua lortzearren ingurumen-ebaluazio estrategiko arruntaren prozeduraren barnean. Prozedura hori hauek arautzen dute: 3/1998 Legeak, otsailaren 27koak, Euskal Herriko ingurugiroa babesteko lege orokorrak, eta 21/2013 Legeak, abenduaren 9koak, ingurumen-ebaluazioari buruzkoak.

Eskabideari hainbat dokumentu atxiki zizkion, tartean, planaren zirriborria, legedi sektorialean eskatzen den dokumentazioa eta hasierako agiri estrategikoa, hauek ezarritako edukiarekin: abenduaren 9ko 21/2013 Legearen 16. eta 18. artikulua, eta urriaren 16ko 211/2012 Dekretuak, planen eta programen ebaluazio estrategikoaren prozedura arautzekoak, 8. artikuluan ezarritakoa.

Abenduaren 9ko 21/2013 Legearen 19. artikulua eta urriaren 16ko 211/2012 Dekretuaren 9. artikulua aplikatuta, Eusko Jaurlaritzako Ingurumen Administrazioaren Zuzendaritzak eraginpeko administrazio publikoei eta pertsona interesdunei kontsulta egin zien, planaren irismen-dokumentua egiteko garaian interesgarria izan litekeen informazioa biltzearren.

Planaren zirriborria eta hasierako dokumentu estrategikoa Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Sailaren webgunearen bidez eskuratu ahal izan ziren, interesdun orok egoki irizitako ingurumen-arloko oharrak egiteko.

Legez ezarritako epea 2020ko uztailaren 1ean bukatu zen, eta zenbait erantzun jaso dira hainbat erakunderen aldetik. Haien emaitza espedientean jasota dago.

ZUZENBIDEKO OINARRIAK

Ingurumen Ebaluazioari buruzko abenduaren 9ko 21/2013 Legearen 1. artikuluan xedatutakoaren arabera, lege horren xedea da ingurumenean ondorio adierazgarriak izan ditzaketan planen ingurumen-ebaluazioa arautuko duten oinarriak ezartzea, ingurumenaren babes-maila handia bermatuz, garapen jasangarria sustatze aldera.

Halaber, Euskal Autonomia Erkidegoko Ingurugiroa Babesten duen otsailaren 27ko 3/1998 Lege Orokorraren 42. artikulua arabera, ingurumen-inpaktuaren ebaluazioek behar bezala bermatuko dute, besteak beste, helburu hau betetzen dela: plangintza-prozesuaren lehen faseetan egingo dela ingurumenaren gaineko efektuei buruzko analisia, hautabide egokienak hautatu ahal izateko; betiere, kontuan izanik jardueren ondoriozko eragin metatzaile eta sinergikoak.

Abenduaren 9ko 21/2013 Legearen 6.1. a) artikuluan ezarritakoaren arabera, ingurumen-ebaluazio

estrategiko arrunta egingo zaie planei eta programei, baita haien aldaketei ere, baldin eta administrazio publiko batek hartzen edo onartzen baditu eta legezko edo arauzko xedapen batek aginduta egiten eta onartzen badira, ingurumen-inpaktua ebaluatu behar zaien proiektuak etorkizunean baimentzeko esparrua zehazten dutenean.

Otsailaren 27ko 3/1998 Legearen 46.1 artikuluan xedatutakoaren arabera, ebaluazio bateratua egin behar da, ingurumen-ebaluazio estrategiko gisa ulertuta, arauaren I. eranskineko A) apartatuan jasotako planei dagokienez, eta plan horien artean dago Barakaldoko 02. Burtzeña-Munoa EUren hiri antolamenduko plan orokorraren aldaketa puntuala.

Abenduaren 9ko 21/2013 Legeak xedatzen duenez, plan baten ingurumen-ebaluazio arrunta hasteko, beharrezkoa da ingurumen-organoak zehaztea zein den ingurumen-azterketa estrategikoaren irismena, ukitutako administrazio publikoei eta interesdunei kontsulta egin ostean.

Arau horrek 18.1 artikuluan xedatzen ditu eskabideari erantsi beharreko dokumentuak, eta, abenduaren 9ko 21/2013 Legeari aurka egiten ez zaionean, urriaren 16ko 211/2012 Dekretuak (planen eta programen ingurumen-ebaluazio estrategikoaren prozedura arautzen duena) 8. artikuluan zabaldu eta osatzen du hasierako dokumentu horri erantsi beharrekoaren edukia.

Amaitzeko, ingurumen-ebaluazio estrategikoaren irismena zehazte aldera, aintzat hartu dira 2013ko abenduaren 9ko 21/2013 Legeak IV. eranskinean jasotako eskakizunak, ingurumen-azterketa estrategikoaren edukiari buruzkoak, bai eta 2012ko urriaren 16ko 211/2012 Dekretuak I. eta II. eranskinetan jasotakoak ere, erreferentziako dokumentuaren edukiari buruzkoak eta ingurumen-jasangarritasunari buruzko txostenaren edukiari buruzkoak, hurrenez hurren.

Orain arte ezarritakoari jarraikiz, espedienteko txostenak aztertu dira eta honako hauek guztiak ikusi: otsailaren 27ko 3/1998 Lege Orokorra (Euskal Herriko Ingurugiroa Babestekoa), abenduaren 9ko 21/2013 Legea (ingurumen-ebaluazioari buruzkoa), urriaren 16ko 211/2012 Dekretua (planen eta programen ingurumen-ebaluazio estrategikoaren prozedura arautzen duena), apirilaren 11ko 77/2017 Dekretua (Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Sailaren egitura organiko eta funtzionala ezartzen duena), urriaren 1eko 39/2015 Legea (Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearena), urriaren 1eko 40/2015 Legea (Sektore Publikoaren Araubide Juridikoari buruzkoa), COVID-19ak eragindako osasun-krisia kudeatzeko alarma-egoera deklaratzeko duen martxoaren 14ko 463/2020 Errege Dekretua, Diputatuen Kongresuaren 2020ko maiatzaren 20ko Erabakia, aipatutako 463/2020 Errege Dekretuak deklaratu zuen alarma-egoeraren luzapena baimentzekoa, eta aplikatzekoa den gainerako araudia.

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa. – Barakaldoko 02. Burtzeña-Munoa EUren hiri antolamenduko plan orokorraren aldaketa puntualaren ingurumen-ebaluazio estrategikoaren irismenari buruzko dokumentua formulatzea, ingurumen-ondoreetarako soilik, eta honako baldintza hauen arabera:

1. HAPOaren aldaketa puntualaren xedea eta ebaluazio-prozesuaren irismena

Barakaldoko 02. Burtzeña-Munoa EUren hiri antolamenduko plan orokorraren aldaketa puntualaren xedea da indarreko egiturako antolamenduan aldaketak egitea eta sortuko den EU2 berriaren antolamendu xehatua eratzea (aldaketak HAPOan onartutako 02. Burtzeña-Munoa EUren eremuan eta harago du eragina). Hauek dira egin nahi diren jarduketak:

- Kalifikazioa aldatzea Zumalakarregi kalearen eta Gurutzetako bide-korapiloaren arteko konexioari: hiriko bide eta komunikazio sistema nagusi izatetik Munoa hiri parke eta espazio libreen sistema nagusi izatera.
- Zumalakarregi kalean, GRUBER-en parean, egin nahi zen biribilgunearen zatia kentzea, «hiriko bide eta komunikazio sistema nagusia» kalifikazioa kendu, eta «espazio libre eta berdegune publikoa» kalifikazioa ematea, toki-sistemen barnean.
- Berdeguneak eta espazio libreak berregituratzea, birkokatuta. Hala, antolaketa egokiagoa izango da, eta Munoa onibarra kultura ondasunaren kalifikaziora egokituagoa.
- 662,15 m²-ko eremu bati, Munoa eta Zumalakarregi kaleen bidegurutzean kokatua, antolamendu xehatua aldatzea: gasolindegia (erregai-zerbitzugune) izatetik, hiriko bide-sarean sartuko da, sistema nagusiaren izaerari eutsita.
- 02. Burtzeña-Munoa EUren mugak aldatzea; BI-3739 errepideak Munoa onibarraren barnean egiten duen tartea hartuko du barruan, Munoa kalearen mugara arte. Munoa kaleko espaloia ere txertatzea, 02. EUren aurrealdekoa (363,75 m²) eta Zumalakarregi kalearen aurrealdea handitzea 26. eta 28. zenbakien parean, galtzadaren mugara arte.
- Zumalakarregi kaleko lur-zerrenda baten erabilera xehatua aldatzea, espazio libretik hiriko bidera (206,84 m²).
- Toki-sistematarako bi lurzati zehaztea.

HAPOaren aldaketa puntualak eragina izango duen antolamendu-eremuaren azalera 54.416,90 m² da, eta «sistema nagusiak» kalifikazioa du oro har. Bizitegi-erabilerari dagokionez, 4 lurzati eraikigarri diseinatu dira hiru eremutan, etxebizitza kolektiboko erabilera xehatuarekin. Lurzati horietan, hirugarren sektoreko eta merkataritzako erabilera baimenduta dago beheko solairuan. Bizitegi-erabilerari dagokienez, 230 etxebizitza eraikitzea aurreikusi da, hiru eraikinetan banatuta. Eraikin berrien profila BS+6 izango da. Munoa kaleko eraikina, ordea, BS+7+TS izango da. Bestalde, 408 plazako aparkaleku bat eraikiko da, sotoan eta erdi-sotoan baimenduta dagoenez. Gainera, 200 metro koadro bideratuko dira ekipamendu publikorako GRUBERen eraikinaren erdiko aldean, Zumalakarregi kalearekin mugan; erdi-eraikita dago, eta beheko solairua + bi solairu ditu.

2. Ingurumen-helburu estrategikoak, printzipioak eta aplikatzeko jasangarritasun-irizpideak.

Plana egiteko funtsezko oinarritzat hartuko dira IV. Ingurumen Esparru Programa 2020ren helburu estrategikoak eta jarduera-ildoak. Horrez gain, arau hauetan bildutako irizpideak jaso beharko dira: Euskal Herriko Ingurugiroa Babesteko otsailaren 27ko 3/1998 Lege Orokorra, urriaren 16ko 211/2012 Dekretua eta Euskal Autonomia Erkidegoko Natura Kontserbatzeko Legearen testu bategina onartzen duen apirilaren 15eko 1/2014 Legegintzako Dekretua.

Era berean, kontuan hartuko dira ingurumena babesteko irizpide, helburu eta zehaztapen hauek: planari aplikagarri zaizkion lurralde-antolamenduko planetan eta plan sektorialetan finkatutakoak.

Zehazki, garapen jasangarriko printzipio hauek zuzenduko dute plana:

- a) Lurzorua zentzuz eta intentsitatez erabiltzea eta lehendik ere artifizialduta dauden lurzoruen erabilera intentsiboa lehenestea, lurzoru naturala urbanizaziotik babestuz.
- b) Hiri-segregazioa eta hiri-barreiadura saihestea, bai eta mugikortasun behartua ere, eta irisgarritasuna sustatzea, lurzoruaren erabileren eta mugikortasunaren plangintza integratuaren bitartez, eta hiri-egitura dentsu, trinko eta konplexuak sustatuz.
- c) Lurzoruaren zigilatzea murriztea, lurzoria jasangarritasun handiagoz erabiliz eta ahal beste eginkizuni euts diezaion sustatuz.
- d) Baliabide naturalen erabilera jasangarria sustatzea: ura, energia, lurzoria eta materialak.
- e) Habitatak eta espezieak, ingurumen naturala eta konektibitate ekologikoa zaindu eta hobetzea.
- f) Paisaiak eta kultur ondarea kontserbatu eta hobetzea.
- g) Energia-aurrezpena eta energia berriztagarrien efizientzia eta erabilera sustatzea, baita kogenerazioa ere.
- h) Aire garbia bermatzea, baita zarata handien eta argi-kutsaduraren mende bizi diren biztanleen kopurua murriztea ere.
- i) Ur-masen egoera ekologiko ona lortzea, bai eta baliabidearen erabilera jasangarria ere.
- j) Klima-aldaketarekiko kalteberatasuna gutxitzen laguntzea, kaltea arintzeko neurriak eta egokitzeko neurriak integratuz.
- k) Arrisku naturalak minimizatzea.
- l) Lurzoru kutsatuaren kudeaketa hobetzea, eragileen eta lurzoruaren erabiltzaile potentzialen berme juridikoa eta jarduera indartuz.

3. Esparru geografikoa eta ingurumen-garrantziko eremuak

02. Burtzeña-Munoa EUren aldaketak eragina izango duen lursailen azalera 54.416,90 m² da, eta «sistema nagusiak» kalifikazioa du oro har. Hiri-lurzoru finkatugabea da, gaur egun industria-instalazioak ditu, baita bizitegi-erabilerako eraikin eta parke publiko txiki bana ere, eta BI-3739 errepedea. Eremuan ez dago ingurumen-garrantziko elementurik. 02. EUren iparraldean Munoa Jauregia dago, kultur ondasun kalifikatua berau, monumentu multzoaren kategoriakoa, Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Hizkuntza Politika Sailaren otsailaren 7ko 41/2017 Dekretuaren bidez (2017ko otsailaren 10eko EHAA, 29, zk.). Halaber, 02. Burtzeña-Munoa EUren eremuan bi industria-eraikin daude; Arcos GRUBER SAREN pabiloia eta Metalurgia Burceña SAREN (MEBUSA) lantegia, eta bi-biak EAEren Euskal Kultura Ondarearen Zentroaren inbentarioan identifikatuta daude, ondare-balio nahikoak dituztelako babes ertaineko kultura ondasun izendatzeko, Eusko Jaurlaritzaren Kultura Ondarearen txostenaren eta Bizkaiko Foru Aldundiaren Euskara, Kultura eta Kirol Departamentuaren txostenaren arabera.

Eremuak baditu hiru kokagune, lurzoru kutsatua izan dezaketenak, industria-jardueren eta gasolindegijardueraren ondorioz; bat, Gruber enpresa bere garaian egondako lurzoria, 48013-00053 kodea (12.514,94 m²), bestea, Mebusa enpresari dagokiona, 48013-00063 kodea (4.425,95 m²), eta hirugarrena, gasolindegia dagokiona, 48013-00059 kodea (4.417,69 m²).

Aurkeztu duten soinu-inpaktuaren azterketaren arabera, zarata-mailak, guztira, bizitegi-erabilerako kalitate akustikoko helburuak gainditzen ditu Munoa eta Zumalakarregi kaleetatik gertuen dagoen aldean.

4. Jarduketak egiteko eremu desegokiak.

Ez da eremu desegokirik aurkitu planak proposatutako jardueretarako edo erabileretarako, baldin eta justifikatzen bada proposamenak bateragarriak direla indarreko legeriarekin, batik

bat, lurzoru-kutsaduraren prebentzioaren eta zuzenketaren arloan eta kutsadura akustikoaren arloan, eta ez badira gainditzen oro har onartzen diren arau edo azterlan teknikoetan ezarritako muga-balioak edo gida-balioak.

Hala ere, bi industria-eraikinetan –Arcos GRUBER Saren pabiloia eta Metalurgía Burceña Saren (MEBUSA) garajea– aurreikusi diren jarduketei dagokionez, eraikin horiek kontserbatu eta aurreikusitako antolamenduan txertatzea gomendatzen da, erabilera berriak emanez.

5. Aldez aurretik egindako kontsultetako erantzunen ingurumen-azterketa laburra.

Jarraian laburbiltzen da zein diren ingurumen-alderdi garrantzitsuenak izapide honetan jasotako txostenetan: ukitutako administrazio publikoei eta pertsona interesdunei egindako kontsulta.

Kultura-ondareari dagokionez:

Plana bateragarria da Munoa Jauregiaren kultura-babesarekin (babes bereziko kultura-ondarea da eta).

Hala ere, bi industria-eraikinei dagokionez (Arcos GRUBER Saren pabiloia eta Metalurgía Burceña Saren (MEBUSA) garajea), eraikin horiek kontserbatu eta aurreikusitako antolamenduan txertatzea gomendatzen da, ondare-balio nahikoak dituztelako erdi-mailako babesa duen kultura-ondasun izateko, EAEko Kultura Ondarearen Zentroaren inbentarioaren arabera.

Lurzoruaren kutsadurari dagokionez:

Planean zehatz seinalatu dira kutsatzaileak izan daitezkeen jarduketak kokatu diren lurzatiak, etorkizuneko erabiltzaileentzako edo ingurumenarentzako arriskutsuak izan baitaitezke. Gainera, lurzoruaren kalitate-adierazpena izapidetu beharko da, baldin eta Lurzorua ez kutsatzeko eta kutsatutakoa garbitzeko 4/2015 Legearen 23. artikuluan aurreikusitako kasuren bat gertatzen bada. Hori horrela, esan behar da jarduketak egin direla, inbentarioan jasotako lurzatietan, 48013-00063 eta 48013-00059 kodekoetan, eta 48013-00063 kodea duen lurzatiak lurzoruaren kalitate-adierazpenari buruzko ebazpen bat duela.

6. Ingurumen-azterketa estrategikoan kontuan hartu behar diren funtsezko alderdien definizioa eta irismena.

Planak egiturazko antolamenduaren eta antolamendu xehatuaren zehaztapenak hartzen ditu barnean. Beraz, kasu honetan egingo den ingurumen-ebaluazioa aurreikusitako egiturazko antolamenduan eta antolamendu xehatuan izango diren ondorio espezifikoetan oinarrituko da.

Ingurumen-azterketa estrategikoak (IAE) abenduaren 9ko 21/2013 Legearen IV. eranskinean ezarritako gutxieneko edukia izan beharko du, eta urriaren 16ko 211/2012 Dekretuaren II. eranskinean jasotakoarekin osatu beharko da. Aurrekoaren arabera, eskatutako edukiek eduki eta egitura hau izan beharko dute:

1. Proposatutako planaren deskribapena
 - 1.1. Plangintzaren esparrua eta helburuak
 - 1.2. Planaren irismena, edukia eta garapena
 - 1.3. Plangintza-aukerak
2. Ingurumenaren ezaugarriak zehaztea
 - 2.1. Ingurumen-egoeraren deskribapena
 - 2.2. Laburpena: ingurumen-alderdi esanguratsuak

3. Ingurumen-ondoreak.
4. Prebentzio-, zuzentze- eta konpentsazio-neurriak.
5. Ingurumena zaintzeko programa
6. Ingurumen-laburpena
7. Laburpen ez-teknikoa.

Ebaluatzen den dokumentuaren ezaugarriak direla eta, uste da IAEk hurrengo alderdietan sakondu behar duela, gutxienez, jarraian adierazten den zabalatasun- eta zehaztasun-mailarekin:

6.1. Proposatutako planaren deskribapena.

Deskribatuko da zer alderdik konfiguratzen duten plana, eta argi eta garbi identifikatuko da plana gauzatzek etorkizunean eragin ditzakeen ekintzetatik zeinek izan ditzaketen efektu kaltegarriak ingurumenean. Hori guztia, honako apartatu hauetan adierazitako egitura eta xehetasunekin:

6.1.1. *Plangintzaren esparrua eta helburuak:*

- a) Azterketan HAPOaren aldaketarekin lortu nahi diren helburu nagusien laburpen txiki bat jasoko da. Gainera, azterlanak labur-labur jaso beharko du nola hartu diren kontuan, planaren elaborazioa egitean, ebazpen honetako 2. apartatuan ingurumena babesteko jaso diren helburuak eta printzipio eta irizpide jasagarriak.
- b) Zehaztuko da zer arau-esparruk arautzen duen plana onartzeko prozedura, eta sustatzailea, organo sustatzailea eta behin betiko onespeneraren organo substantiboa identifikatuko dira.
- c) Identifikatuko da ea zer plan edo programa dauden hierarkikoki planaren gaineratik, zeinen helburu eta zehaztapenak haren bidez garatzen baitira. Azaletik deskribatuko dira planaren xedearekin edo eremuarekin zerikusia duten plan edo programa horien zehaztapenak eta aurreikuspenak.
- d) Planaren bitartez indarreko antolamenduaren barruan aldatuko diren alderdi zehatzak eta zehaztapenak deskribatuko dira.
- e) Hierarkian planaren gaineratik dauden planek edo programek ingurumena babesteko izan ditzaketen irizpideak, helburuak eta zehaztapenak zehaztuko dira, planari aplikatzekoak badira.
- f) Hierarkian gorago dauden plan edo programa horiei ingurumen-ebaluazioko prozeduraren bat ezarri bazaie, prozedura horiei amaiera eman zieten ingurumen-adierazpen estrategikoen datak eta jaulkipen-egintzak aipatuko dira, eta adieraziko da zer aldizkari ofizialetan argitaratu diren eta zer estekatan kontsulta daitezkeen. Kasu horretan, zehaztu beharko da ingurumen-adierazpen estrategiko horien zehaztapenetatik zeintzuk eragiten dieten planaren helburuari edo eremuari, bai eta ingurumen-ebaluazioko irizpideak ere, ingurumen-adierazpen estrategikoetan edo bere garaian indarrean zegoen araudia aplikatuz igorritako dokumentu baliokideetan ezarritakoak.
- g) Adieraziko da ingurumena babesteko zer irizpide, helburu eta zehaztapen finkatzen diren arauetan eta estrategietan, baita planarekin hierarkia-harremanik ez duten beste plan eta programa batzuetan (Europar Batasunekoak, estatukoak, autonomia-erkidegokoak edo tokikoak) ere, Plana diseinatzeko aplikagarriak direnean. Espezifikoki justifikatu beharko da ebazpen honen 2. apartatuan jasotako ingurumena babesteko helburuak eta jasagarritasun-printzipio eta -irizpideak nola bete diren.

6.1.2. *Planaren irismena, edukia eta garapena.*

- a) Planaren irismenak ezin hobeto definituta geratu behar du. Azterketan adieraziko da zer nolako antolamendua garatuko den planean, egiturako antolamenduari edo antolamendu xehatuari dagozkion neurriak edo jarduketak zehaztuta, eta, halaber, planaren aplikazioaren ondorioz planteatzen diren ekintzen deskribapen zehatz bat garatuko du, eta haiek lotura izan beharko dute planak eragindako eremuan indarrean den hirigintza-antolamenduaren aldean dakartzan aldaketekin edo xehakapenekin, baldin eta ingurumenean ondorio kaltegarri nabarmenak izan baditzakete, betiere eremuaren garapenerako beharrezkoak diren jarduketa guztiak aintzat hartuta.
- b) Aurreikuspen bat egingo da planean egiten diren proposamenak gauzatzeko egingo diren proiektuen izaerari buruz, batik bat lurzoru kutsatuei eta urbanizazio-proiektuari buruz.
- c) Deskribatu eta lokalizatuko da planeko zer ekintzak eragin diezaiokeen ingurumenari, eta hierarkizatuko dira eraginik handiena dutenetik gutxiago dutenetara, kontuan hartuz haien kokapen zehatza, izaera, tamaina, funtzionamendu-baldintzak eta baliabide naturalen kontsumoa. Planean deskribatzen den ekintza bakoitzari kode bat esleituko zaio, zeina IAEn hurrengo apartatuetan erabiliko baita, ekintzat aipatu behar direnean.
- d) Adieraziko da zer garapen aurreikusten zaion planari, behin betiko onartu ondoren, eta plangintzaren ondorengo faseak aipatuko dira, baita planaren zehaztapenak ezartzeko tresnak ere. Era berean, aurreikusiko da nola egin plana garatzeko tresnen edo proiektuen ingurumen-ebaluazioa.
- e) Nolanahi ere, plana garatzeko denbora-aurreikuspen bat txertatuko da, eta, hala badagokio, aurreko apartatuan deskribatutako ekintzetarako zehaztuko da.
- f) Epigrafe honetan jasotako informazioa eskala egokian jasoko da kartografian, eta erakutsiko du zein den lurraldearen erabilera, bai eta planeko zer ekintzak, aurreikuspenek eta jarduketak eragin ditzaketen ondorio esanguratsuak ingurumenean. Beharrezkoa bada, informazio kartografikoa atxiki beharko da, gutxienez hauek jasoko dituenak: eremuaren mugak eta jarduketak kokapena, pdf eta shape formatuetan.

6.1.3. *Plangintza-aukerak.*

- a) Azaletik deskribatuko da zer aukera ezberdin hartu den kontuan plana formulatzeko prozesuan. Aukera horiek teknikoki eta ingurumenaren aldetik bideragarriak izan behar dute, eta honako alderdi hauei buruzkoak izan daitezke: kokapena, garapen teknikoa edo teknologikoa, denbora-garapena, kudeaketa, antolamendua, baliabide naturalen erabilera edo beste edozein alderdi.
- b) Aukera horien irismena deskribatuko da, aukera bakoitzetik ondorioztatzen diren planeko proiektu eta ekintzen arteko desberdintasunak argi eta garbi adierazita, IAEn 1.2 c) apartatuan deskribatzen diren ekintzekin alderatuta.
- c) Laburpen bat jasoko da adierazteko zergatik baztertu diren plangintza-aukera batzuk eta zergatik hautatu den azkenean proposatutako aukera.
- d) Behar denean, modu kartografikoan jasoko dira aztertu diren aukerak.

6.2. Ingurumenaren egungo egoeraren ezaugarriak zehaztea.

Azterlanak deskribatu beharko du zein diren ingurumenaren egungo egoeraren alderdi garrantzitsuak planak eragindako eremuan. Karakterizazio hori elementu abiotikoei eta biotikoei buruzkoa izango da, bai elementu mota bakoitzaren ikuspegi sektorialetik, bai haien interakzioen ikuspuntutik, ingurumenaren egungo egoeraren ikuspegi integratua emateko.

Planaren eraginpeko esparrutzat, antolamendu-esparru osoaz gain, haren ingururik hurbilena hartu behar da, planaren ekintzek ingurumen-ondorio garrantzitsuak izan ditzaketen eremuetara mugatuta.

Ingurumenaren kalitateari buruzko alderdiei buruzko informazioa azterlanetan edo bestelako erreferentzia-dokumentuetan oinarrituta dagoenean, emandako datuen iturria identifikatuko da, eta adieraziko da zein den izenburua, urtea, egilea, eta, hala badagokio, zer esteka balia daitekeen lana bere osotasunean kontsultatzeko.

IAEak ingurunearen aldagaiak jasoko ditu, eskala egokiko planoetan.

6.2.1. *Ingurumen-egoeraren deskribapena.*

Honako hauek izango dira, gutxienez, aintzat hartuko diren ingurumen-alderdiak:

- a) Ingurune fisikoa. Honako alderdi hauek hartuko dira kontuan, besteak beste: arroka ama eta lurpe mota, iragazkortasuna, urrakortasuna, ur-masa eta -guneak, klimaren inguruko alderdiak eta lurzoru mota.
- b) Natura-ondarea. Halakorik bada, interes naturalistiko eta ekologikoko elementuak adieraziko dira: landaredia, baso autoktonoak, habitat interesgarriak, basoko flora eta fauna, ondare geologikoa, korridore ekologikoak, hezeguneak, onura publikoko mendiak eta mendi babesleak.
- c) Paisaia. Paisaiari dagokionez interesekoak diren eremuak hartuko dira kontuan, hala nola ikusizko mugarriak eta pertzepzioaren ikuspegitik interesgarriak diren beste elementu batzuk.
- d) Ingurumen-arriskuak eta -arazoak. Arriskuei buruz jaso ahal izan diren datu guztiak ekarriko dira, kontuan hartuta, besteak beste, urpekortasuna, lurpeko uren kalteberatasuna, arrisku geoteknikoak, klima-aldaketak eragindako arriskuak edo aipatzeko moduko beste edozein ingurumen-arrisku.

Halaber, deskribatuko da zer ingurumen-arazo hauteman duten airearen, uraren edo lurzoruaren kalitatean, egoera akustikoa barne. Kutsagarriak izan daitezkeen iturriak eta kutsagarriak izan daitezkeen jarduerak jasan dituzten lurzoruak identifikatuko dira, eta baliabide naturalen erabilgarritasuna aztertuko da, bereziki urarena.

- e) Kultura-ondarea. Adieraziko da zein den hautemandako elementu bakoitzaren garrantzia, zaurgarritasuna, tresna eta babes maila. Era berean, aipatuko da zer arau-xedapenek ematen dion kalifikazioa eta babesak kultura-ondasunari. Kontuan hartuko dira ondare immaterialeko elementuak.
- f) Apartatu honetan, gainera, egon daitezkeen beste ingurumen-baldintzatzaile batzuk landuko dira, baldin eta planaren ingurumen-ebaluaziorako garrantzitsuak badira, hala nola mugikortasunari eta garraioari buruzko alderdiak, eremuko irisgarritasun-baldintzak, baliabide berriztagarrien eta ez-berriztagarrien kontsumoari lotutako beharrak (ura, energia etab.), jendea bizi den eremuen presentzia eta kaltetua izan daitezkeen biztanleria eta abar.

6.2.2. *Laburpena: ingurumen-alderdi esanguratsuak.*

Aurreko apartatuan azaldutako deskribapen eta datuetan oinarrituta, aztertuko da zein den ebaluazio-eremuko ingurumenaren egungo egoera, eta labor jasoko dira ingurumen-ebaluaziorako prozesuan garrantzitsuak diren ingurumen-alderdiak. Zehatz-mehatz adieraziko da etorkizunean zer ingurumen-alderdik jasan dezaketen planeko ekintzen eragina.

Ingurumen-azterketa estrategikoak detektatu beharko du zer eremu izan daitezkeen arazotsu ingurumenaren aldetik, bateragarriak izan daitezen proposamenen garapenarekin; horretarako, kontuan hartu beharko du Ebazpen honen 3. apartatuan adierazi diren eta ingurumenaren aldetik garrantzitsuak diren eremu edo elementuak daudela.

Era berean, eremuaren ingurumen-diagnostiko egokia egin beharko da, eremuaren harrera-gaitasuna, arrisku guneak eta inguru hauskor edo kalteberak ebaluatzeko.

6.3. Proposatutako planaren ingurumen-ondoreak.

Apartatu honetan, identifikatu eta baloratu beharko da planak zer efektu edo ondore aurreikusteko modukorik duen IA Eren 2. apartatuan deskribatutako ingurumen-kalitateko elementuetan, eta efektu horien ezaugarriak deskribatu beharko dira.

Planaren ondoreak identifikatu eta ezaugarritzeko, aztertuko da zer interakzio dauden planean aurreikusitako ekintzen eta eragina jasan dezaketen ingurumen-elementuen ezaugarri espezifikoaren artean, eta zer ingurumen-arazo edo arrisku sortu edo areagotu daitekeen.

Ezaugarrien deskribapenean, zehatz eta argi adierazi beharko da zer motatako efektuak dauden, honako hauek bereizita: zeharkako efektuak, metatze-efektuak, efektu sinergikoak, epe labur, ertain eta luzerako efektuak, efektu iraunkorrak eta aldi baterako efektuak.

IA Eren 1.2.c) apartatuan identifikatutako ekintza guzti-guztien ondoriozko ingurumen-efektuak deskribatuko dira, apartatu horretan ekintzei esleitutako kodea berariaz aipatuta. Hala dagokionean, zehaztuko da zer efektu dakarren zenbait ekintzaren konbinazioak.

Era berean, ingurumen-izaerako edozein efektu bereiziko da, baldin eta biztanleriaren, giza osasunaren edo ondasun materialen gainean ondorio kaltegarri eta nabarmenak izan baditzake.

Horrela deskribatutako planaren efektu bakoitzari, berriz, kode bat esleituko zaio. Kode hori azterketaren hurrengo apartatuetan erabiliko da, baldin eta aipatu behar bada.

Beste alderdi batzuen artean, honako eragin hauen analisia jorratuko da:

- Kutsatuta egon daitezkeen kokagunetan egindako indusketen eta lur-mugimenduen ondoriozkoak.
- Ingurumen-azterketa estrategikoan aztertuko da aurreikusi diren erabileretan zer mailatan betetzen diren 213/2012 Dekretuan ezarritako kalitate akustikoaren helburuak (213/2013 Dekretua, urriaren 16koa, Euskal Autonomia Erkidegoko kutsadura akustikoari buruzkoa).
- Planari lotutako karbono-aztarna ebaluatuko da.

Identifikatu eta kodetutako efektu edo ondoreak baloratzeko, honako alderdi hauek hartuko dira kontuan, besteak beste:

- a. Gertatzeko probabilitatea, iraupena, maiztasuna eta itzulgarritasuna.

- b. Efectuen norainokoa eta irismen espaziala (adibidez, zenbateko azalera har dezaketen eraginpean).
- c. Eraginpean gera daitekeen eremuaren balioa eta kalteberatasuna, honako hauek kontuan hartuta:
 - Natura-, kultura- eta paisaia-ezaugarri berezirik dagoen.
 - Aurkako ingurumen-baldintzarik dagoen, airearen, uraren edo lurzorua kalitate-estandarrak edo muga-balioak gaindi dezakeenik.
 - Planak zer neurritan sortu edo areagotu ditzakeen ingurumen-arriskuak.

Ahal den guztietan, efektuak edo ondoreak zenbatetsiko dira, datu neurgarriak erabilia, planean aurreikusitako jarduketak eta proiektuak gauzatzearen ondorioz deskribatu diren ingurumen-faktoreen egoera-aldaketei buruzkoak. Hala badagokio, adieraziko da zer ziurgabetasun-maila dagoen ondore edo efektu horien iragarpenean.

Ahal bada, efektuak kartografia bidez lokalizatuko dira eta, halaber, ahalegina egingo da zehazten plan edo programaren zer fasetan gerta litezkeen, aurreikuspenen arabera.

Adieraziko da ea detektaturiko efektu horren sorburu-ekintzak eskatzen duen ala ez planaren zehaztapenak beste plan eta programa batzuetan txertatzea, eta kasu bakoitzean zehaztuko da zein den eraginpeko plangintza-tresna.

Hierarkizatu egingo dira hala deskribatutako ingurumen-efektuak, eta haien garrantzi erlatiboa nabarmenduko da.

6.4. Prebentzio-, zuzentze- eta konpentsazio-neurriak.

Apartatu honetan deskribatuko dira neurri batzuk, IAEak 3. apartatuan aurreikusitako ingurumen-efektu kaltegarriak prebenitu, murriztu eta, hala badagokio, konpentsatzeko.

Hartuko diren neurriek bermatu egin beharko dute ez dela ingurumen-efektu esanguratsurik sortuko, planaren ekintzak garatzearen eta etorkizunean gauzatzearen ondorioz. Haien helburua izango da natura-, kultura- eta paisaia-baliabideak babestea, natura-arriskuak prebenitzea eta hautemandako ingurumen-arazoen aurrean hobetu eta egokitzea.

Proposatutako neurriek koherenteak izan beharko dute aurreikusitako ingurumen-efektuekin. Neurriak deskribatu egingo dira, eta prebenitu, zuzendu edo konpentsatu nahi den efektu bakoitzarekin erlazionatuko dira, IAEaren 3. apartatuan horretarako esleitutako kodea berariaz aipatuta. Bereziki, eta beste batzuen artean, honako neurri hauek zehaztuko dira:

- Eremuan kutsatuta egon daitezkeen kokaguneak daudenez eta, beraz, etorkizuneko erabiltzaileentzat edo ingurumenarentzat arriskutsuak izan daitezkeenez, gauza bera egin beharko da lurzorua kalitateari buruzko adierazpena egitean, plana behin betiko onartu aurretik, Lurzorua ez kutsatzeko eta kutsatutakoa garbitzeko ekainaren 25eko 4/2015 Legeari jarraikiz.
- Hala badagokio, kalitate akustikoaren helburuetara iristeko behar diren neurriak ezarriko dira, EAEko hots-kutsadurari buruzko urriaren 16ko 213/2012 Dekretuaren 40. artikuluan zehaztutakoaren arabera, eta eremu akustikoak eta erabilera aurreikusiak kontuan hartuta.
- Era berean, irizpideak zehaztuko dira planaren garapena paisaian integratzeko, erabili beharreko espezieak eta birlandatu beharreko gainazalak ezarrita, eta kontuan hartuta Eusko Jaurlaritzako Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Sailak egindako «Lorategi eta berdegune jasangarriak diseinatzeko eskuliburua» argitalpenean jasotako gomendio eta neurriak. Ildo horretatik, landareztatze- eta lorategi-lanetan ez dira inola ere erabiliko inbaditzaileak izan daitezkeen espezie aloktonoak, hala nola *Fallopia*



japonica, Robinia pseudoacacia, Cortaderia selloana edo beste batzuk. Orobat, neurriak hartuko dira espezie horiek kentzeko eta lur-mugimenduen bidez hedatzea ekiditeko; horretarako, kontrolatu egingo da birlandaketa eta urbanizazioko lorategietan erabiliko diren mailegu-materialen eta landare-lurraren jatorria eta osaera.

- Ingurumen-ebaluazioari buruzko abenduaren 9ko 21/2013 Legeak eskatzen duenez, ingurumen-azterketa estrategikoak zenbait neurri jasoko ditu, planak klima-aldaketan izan dezakeen eragina arintzeko eta hartara egokitzeko. Xede horrekin, IHOBek egindako gida metodologiko hauek erabili ahal izango dira erreferentzia gisa: *Klima-aldaketara egokitzeko udal-programak egiteko gida. Udalsarea 21 lan-koaderno* eta *Euskadiko Hirigintzaren Plangintzari buruzko eskuliburua klima-aldaketa arintzeko eta klima-aldaketara egokitzeko*.

Deskribatzen den neurri bakoitzari kode bat esleituko zaio, eta kode hori IAEko hurrengo apartatuetan erabiliko da, erreferentzia erabili behar bada.

Adieraziko da proposatutako neurriak planaren zein zatitan txertatu diren, eta espresuki adieraziko da planaren zein dokumentu teknikotan jaso diren.

Hala badagokio, prebentzio-, zuzentze- eta konpentsazio-neurriak proposatuko dira, komenigarri edo egingarria denean haiek aplikatzea plangintzaren geroagoko fase edo etapetan edo plana gauzatzeko etorkizunean diseinatuko diren proiektuetan.

Kostu ekonomikoren bat dakarten prebentzio- eta zuzentze-neurrien aurrekontua ere bilduko da, horiek gainbegiratzeaz arduratuko den agentea edo pertsona adierazita.

6.5. Ingurumena zaintzeko programa.

Ingurumena zaintzeko programak planaren ingurumen-jarraipenerako aurreikusitako neurriak jasoko ditu. Neurri horiek alderdi hauek kontrolatzeko jomuga izan beharko dute:

- Gainbegiratzea ea behar bezala ezartzen diren planak ingurumenean izan ditzakeen ondorio kaltegarriak prebenitu, murriztu edo zuzentzeko aurreikusita dauden neurriak.
- Ingurumen-elementu garrantzitsuen bilakaera zaintzea, baita plana martxan jarri aurretik zeuden ingurumen-arazoen bilakaera ere.
- Plana gauzatzearen ondoriozko ingurumen-efektuak egiaztatzea, aurreikusi gabeko eragin kaltegarriak azkar identifikatzeko eta horiek saihesteko edo zuzentzeko neurri egokiak hartu ahal izateko.
- Aztertzea ea prebentzio- eta zuzenketa-neurri osagarriak hartu behar den plana egikaritzeko aurreikusitako garapen-tresnetan eta proiektuetan.

Jarraipen-neurriak IAEaren 4. apartatuan jasotako babes, zuzenketa eta konpentsaziorako neurriekin identifikatu eta kodetuko dira, eta horiekin bat etorri beharko dute. Hauek zehaztuko dira jarraipen-neurri bakoitzerako:

- Jarraipenaren xede diren ingurumen-alderdiak edo -aldagaiak eta haien neurketa-adierazleak (kuantitatiboak eta/edo kualitatiboak).
- Zein diren gehieneko mugak edo erreferentzia-mailak parametro kuantifikagarrientzat.
- Adieraziko da planaren zein gauzatzeko-fasetan egingo den kontrol bakoitza, eta nor diren eragileak edo arduradunak.

6.6. Ingurumen-laburpena.

Apartatu honetan deskribatuko da zelan txertatu planean ingurumen-alderdiak.

Xehetasunez aztertuko da nola hartu diren kontuan eta nola betearazi diren ingurumena babesteko ezarritako irizpideak, helburuak eta zehaztapenak, IAEren 1.1 apartatuan deskribatutakoak.

Aztertuko da, gainera, zenbaterainoko arriskua dagoen planak etorkizunean ingurumenean efektu adierazgarriak izateko, eta argudio nahikoak emango dira, egiaztatze ezean, proposatutako babes-, zuzenketa- eta konpentsazio-neurriak planean txertatzen badira, oso arrisku txikia dagoela efektu garrantzitsu horiek jazotzeko eta, ondorioz, ez dagoela eragozpenik plana garatzeko. Ondorio hori laburbiltzeko, IAEren gainerako apartatueta jasotako informazioei buruzko erreferentzia egokiak erabiliko dira.

6.7. Laburpen ez-teknikoa.

Emandako informazioaren laburpen ez-tekniko bat ere bilduko du IAEak, eta laburpen horrek, bestalde, ebaluazio-prozesuan jorratutako gaietako prestakuntza espezifikorik ez duten pertsonen erraz ulertzeko moduan idatzita egon beharko du.

Apartatu horri, gainera, egindako ebaluazioa hobeto ulertzen lagunduko duen informazio grafikoa ere erantsi beharko zaio edo, bestela, informazio hori erraz eskuratzeko behar diren erreferentziak jaso beharko dira.

7. Izapideak: jendaurreko informazioa eta kontsultak.

Urriaren 16ko 211/2012 Dekretuaren 12. artikuluan eta abenduaren 9ko 21/2013 Legearen 21. artikuluan ezarritakoarekin bat etorriz, organo sustatzaileak jendaurreko informazioaren izapidearen pean jarriko du plan honen hasierako bertsioa, IAEarekin batera, gutxienez, 45 egunez. Urriaren 16ko 211/2012 Dekretuaren 12. artikuluan eta abenduaren 9ko 21/2013 Legearen 22. artikuluan xedatutakoaren ondorioetarako, organo sustatzaileak, jendaurreko informazioaren izapidearen pean jartzearekin batera, kontsulta egin beharko die administrazio eta interesdun ukituei. Organo sustatzaileak gutxienez erakunde eta interesdun hauei egin beharko die kontsulta:

- Eusko Jaurlaritzako Kultura Ondarearen Zuzendaritza.
- Eusko Jaurlaritzako Osasun Publikoaren eta Adikzioen Zuzendaritza.
- IHOBE. Ingurumen Jarduketarako Sozietate Publikoa.
- Bizkaiko Foru Aldundiko Kultura Zuzendaritza Nagusia.
- Ekologistak Martxan Bizkaia.
- Eguzki, Eguzkizaleak Elkarte.

8. Dokumentazioa aurkezteko jarraibideak.

Abenduaren 9ko 21/2013 Legearen 16. artikulua betez, kualifikazio profesional eta goi-mailako hezkuntzari buruzko arauen arabera behar besteko gaitasun teknikoa duten pertsonen egin beharko dute IAEa, eta Legearen eskakizunak betetzeko behar den kalitatea izango du. IAEak eta haren eranskin guztiek (eragin akustikoari buruzko azterketak, adibidez) pertsona horiek identifikatu beharko dituzte, eta haien tituluak eta, hala badagokio, lanbide arautua adierazi beharko dituzte. Identifikazioak barne hartu beharko ditu izen-abizenak eta nortasun-agiri nazionalaren edo helburu bererako beste edozein agiriren kodea (elkargokide-



zenbakia entregatuz gero, horrek bat etorri behar du elkargo profesional jakin baten erregistroarekin). Gainera, amaiera-data eta pertsona horien sinadura jasoko dira. Haiek dokumentuaren edukien eta informazioaren fidagarritasunaren erantzule izango dira, salbu eta administrazioetik era fede-emailean jasotako datuei dagokienez. Apartatu monografikoak baditu, apartatu horien arduradunak identifikatu beharko dira.

Dokumentazioa aurkezteko, honako jarraibide hauek bete beharko dira:

1. Ingurumen-adierazpen estrategikoaren eskaerarekin batera aurkeztutako dokumentuek behar den koherentzia errespetatu beharko dute, bai haien artean, bai aurretik aurkeztutakoekin, halakorik bada; hartara, ez da oztopatuko erabakia hartu behar duten administrazio-organoen lana, baizik eta erraztu.
2. Arreta berezia jarri beharko da kasu bakoitzean datu egokiak adierazteko, dokumentu teknikoan apartatu desberdinak elkarrekin erlazionatzeko moduan (esaterako, apartatu batean planeko ekintzak deskribatzen badira eta beste batean ekintza horiek eragindako ingurumen-inpaktuak; bi kasuetan, izen berarekin aipatu beharko dira ekintzak).
3. Beharrezkoa izanez gero, datuak zein iturritatik lortu diren adierazi beharko da.
4. Behar den apartatuetan, planaren, programaren edo proiektuaren dokumentazio grafikoa eta kartografikoa gehitu beharko da (gutxienez, planaren eta aurreikusitako jarduketan informazio kartografikoa aurkeztuko da). Planoak pdf formatuan entregatu beharko dira, georeferentziatuta; hau da, pdf-ek eremuko koordinatuak eduki beharko dituzte UTM30N ETRS89 erreferentzia-sistema ofizialean.
5. Análisi tekniko egokia errazteko, bistaratzeko pdf formatuko artxiboez gain, planoen kopia gehigarri bat entregatu beharko da shape formatuan (UTM30N ETRS89 erreferentzia-sistema erabilita), zeinak ezingo baitu 10 Mb gainditu. Shape fitxategi hori entregatzeko, ZIP fitxategi bakarrean konprimatuko dira shape-fitxategia osatzen duten 4 dokumentuak: .shp, .shx, dbf, .prj.

Lau fitxategiak bilduko dituen «eremua.zip» shape konprimatuaren adibidea:

- eremua_adibidea.shp
- eremua_adibidea.shx
- eremua_adibidea.dbf
- eremua_adibidea.prj

6. Plano guztiak kodea eta titulua jarrita identifikatu behar dira. Halaber, honako hauek adierazi beharko dira: irudikatutako datuak zuzen interpretatzeko behar diren azalpenak eta sinboloak; eskala grafikoa eta zenbakizkoa, inprimatzeko formatua adierazita; sinadura eta noiz egin den.
7. Jatorrizko eskalatik murriztutako planoak aurkeztuz gero, zuzendu egin beharko da planoan jatorrian adierazitako eskala, aurkeztutako planoan oinarritutako neurketek ez dezaten izan akatsik.
8. Dokumentazioarekin batera aurkeztuko dira testuetan zehar aipaturiko eranskin, irudi, plano edo argazki guztiak. Erreferentzia horiek argi eta garbi jarri behar dira, kasuan kasuko elementua erraz aurkitzeko moduan.
9. Informazio jakin bat dokumentuko apartaturen baten zuzenketa gisa aurkeztekotan, eta aldi berean espedientearen zuzendu nahi den apartatua mantentzen bada, informazio berriak adierazi beharko du jatorrizko dokumentuaren zer kapitulu, orrialde, epigrafe,

apartatu, lerrokada, esaldi, koadro, irudi, plano eta abar ezeztatu edo ordezkatu behar den zuzenketaren ondorioz. Aurreko dokumentazioren bat osatzen edo zuzentzen duen dokumentazioak egoera horren berri eman beharko du hasieran. Aipatutako jarraibideak betetzen ez badira eskaera bat zuzentzeko, litekeena da izapide gehigarri bat behar izatea, kontraesanezko edo inkongruente izan daitezkeen alderdiak argitzeko, eta horrek atzerapena ekartzea prozeduraren ebazpenean.

10. Eskaera IKS-eem sistemaren bidez aurkeztu beharko da, aplikatzekoak diren fitxak eta formularioak erabilia. Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Sailaren webgunean eskura daitezke, helbide honetan zehazki:
<http://www.euskadi.eus/informazioa/ingurumenari-buruzko-izapide-elektronikoen-gida/web01-a2inguru/eu/>
11. Dokumentu bat .pdf formatuan aurkezten bada, gehienez 30 MB izango ditu, eta bilaketak egitea ahalbidetu beharko du. Dokumentu handiagoak zatitu egin beharko dira, sisteman sartuko badira.
12. Aurkeztutako dokumentazio guztiaren aurkibide osoa txertatuko da, eta zehaztuko da zer orrialdetan dagoen adierazitako apartatu bakoitza Aurkibidea aurkeztean .pdf dokumentu baterako, adierazitako orrialde-zenbakia bat etorriko da orrialde hori aurkitzeko irakurketa-programaren «Joan orrialde honetara» aginduan adierazi behar denarekin.
13. Datuak igortzean, organo sustatzaileak beti bermatu beharko du datu pertsonalak babesteari buruzko araudia betetzen dela.

Bigarrena. - Ebazpen hau Barakaldoko Udalari komunikatzea.

Hirugarrena. - Ebazpen hau Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Sailaren webgunean argitaratzeko agintzea.

Vitoria-Gasteiz, 2020ko uztailaren 3a.

Ingurumen Administrazioaren Zuzendaria
Director de Administración Ambiental



INGURUMEN, LURRALDE PLANGINTZA
ETA ETXEBIZITZA SAILA

IVAN PEDREIRA LANGHAS
DEPARTAMENTO DE TERRITORIO, PLANGINTZA
PLANIFICACIÓN TERRITORIAL Y VIVIENDA